

**SOLE I CAMARDONS, JORDI:
«SOZIOLINGUISTIKA GAZTEENTZAT»,
UEU-EKB, (ADOREZ ETA ATSEGINEZ
MINTEGIAK PRESTATUTAKO LANA),
BILBO, 1991, 153 ORR.**

Joxe Manuel Odriozola

Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea

Ez da liburu hau jatorrizko bertsiorearen itzulpen hutsa. Itzulpena da noski bere luze-labur nagusian, baina badu egokitzapenik ere euskal egoera berezira. Itzultzaile-talde baten zeregina izan da soziolinguistika katalan honen obra euskaratzea; biziki eskertzekoa hain zuzen, gerora ikusiko dugun legez. Atariko ohartxo honekin ekiten dio taldeak bere lan isilari: funtsean obraren izaera dagoen dagoenean laga dutela, baina «*irakaskuntzan liburua erabili behar dutenentzat baliagarri izan dadin, azken zatia, Proposamen Didaktikoak eta Material Didaktikoa izenekoa, egokitu egin dugu, 'katalan' agertzen den lekuan 'euskarara' eta Kataluniako adibideen orde hemengoak jarritz*» (Olatz Arantzabal, Ane Mirren Irusta, Laura Martínez, Axun Aierbe, Arantzazu Loidi).

Irakurlea berehala ohartuko den bezala, liburuaren moldaera taxutzen duten egitura-atalen izenburuak aski erakargarriak dira be-

rez. Ez da ordea izenburuen liluran ahitzen obra honen azalpen-indarra. Harrigarria bezain txalogarria da egilearen gaitasun aparta: soziolinguistikaren giltzarririk ezkutu-sakonenak pedagogi sena sotilaz adierazteko duen ahalmen gaitza. Ez dago edonoren esku gauzarik sakonenak itxuraz argi eta garbi azaltzeko metodologi bidea. Alde honetatik, soziolinguistikaren literaturan liburu gutxi egongo da, egotekotan, teoriaren zorrotasuna kamustu gabe, euskalgintzarako hain lanabes egokitua eskaintzen duenik.

Hurrenez hurren, honako hauek dira Solé i Camardons-ek jorratzen dituen kontzeptu-gaiak: «Hizkuntza eta gizartea», «Soziolinguistika», «Elebitasun kontzeptua», «Hizkuntz ordezkapenaren kontzeptua», «Hizkuntz asimilazioa», «Hizkuntz gatazka kontzeptua», «Hizkuntza autozentratua», «Diglosia kontzeptua», «Standar linguistikoa», «Dialektoak eta standarra», «Uztardura bikoitza», «Hizkuntz minorizazioa», «Hizkuntz diskriminazioa», «Katalanaren aurkako jokabideak», «Hizkuntz normalkuntza» eta gurera egokitua dagoen material didaktikoa.

Hitzaurretik beretik liluratzen gaitu soziolinguistika katalan honen oharren zotilak. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa, hondararren hondarrean, Baltikoko edo Kataluniako egoeren antz-irudikoa dela baieztatzen digu. Xehetasun alferren bila dabilen askok maiztxo ahazten duen gauza da hau gure artean. Hari berari jarraiki, «*anormalizazio eta asimilazio espainiarraren prozesu luzearen eraginez, euskaldunen hizkuntzan hitzegin gabe ere 'euskaldun' izateko posibilitaterik bazela sinestera iritsi ziren, eta hizkuntz ordezkapenaren azken zatira iritsita gaudela erakusten duen zantzua, zantzurik larrietakoa, baino ez zen hori*». Sintoma, egia esan, ez da batere aldatu Estatu asimilatzailearen estrategiapean darabagun «normalkuntza» aldi honetan: erdaldun gutxi aitortuko du zinez eta benetan «euskaldun» izatetik «vasco» izatera dagoen egiturazko amildegia.

Hizkuntza menderatuen zoria behar bezala bideratzeko noraezko auzizat dauka soziolinguistikaren ekarpena. Bai katalanentzat eta bai euskaldunontzat «*ziur aski soziolinguistika bezain beharrezko eta erakargarri den beste gairik*» ez dagoelakoan dago. Horra bada gai hau irakaskuntza formalean txertatzeko premiaren zioa: humanistikaren alorrean, ohizko «*Gramatika eta hizkuntzalaritzako ezagupen hutsaren ohiturakeriak askoz ere paradigma zabal eta sakonagoari egin behar dio leku, iraultza soziolinguistikoa ekarriko duenari, alegia*». Halaz ere, irakaskuntzako agente aurrerakoien artean ere sentiberatasun urria ez dagoenean «*sarri*

askotan nekatuta eta iparra galduta ikusi izan ditudala aitortu beharra daukat». Edo bestela esanda, patetikoa izan ohi da filologo-hizkuntzariak soziolinguistika «espontaneoarena» eginez, euskara edo katalanaren gizarte-gorabeherak esplikatzen entzutea.

«Hizkuntza eta gizartea» deritzan atalean zientzia-disziplina jaio berriaren (1979) beharra azpimarratzen digu. Are gehiago: soziolinguistika ez da hizkuntz errealitate sozialaren zer-nolako ulertzeko behar dugun sistema teoriko hutsa: «soziolinguistikak, errealitatea ulertzen eta aztertzen lagundu ezezik, errealitate hori aldatzen lagun diezaguke; hau da, hiltzorian dagoen hizkuntza, hizkuntza normal, hiltzuntz guztiek egoera guztietan erabiltzen duten hizkuntza bihurtzen lagunduko digu». Horra, beraz, bere balio bikoitza: balio teorikoa (kategoria analizatzaileen sistema) eta balio praktikoa (gizarte-harreman linguistikoen egoera aldatzeko borroka-tresna).

Soziolinguistikak ikuspegi berria ekarri du hizkuntzazko gizarte eremura. Orainsu arteko eskema zera omen zen: «hizkuntza eta boterea», «hizkuntza eta gizartea»... Alegia, hizkuntz sistema gizarte sistematik at irudikatzen zuen ikuspegi funsgabea. Orain, soziolinguistikari esker, ba omen dakigu besterik dela elementu horien arteko uztardura: hots, «hizkuntza X-en» dago. Erran nahi baita, «Ikuspegi berri horrek erakusten digu (la) harreman bat dagoela osagaia eta osoaren artean, edukia eta ontziaren artean dagoena bezalakoa. Gurpila autoarekiko dena izango da hizkuntza gizartearekiko».

Solé i Camardons-ek arrazoi osoarekin dioten bezala bi soziolinguistika mota daude eremu honetan. Horietarik «Lehenengoa despotismo ilustratua gogorarazten digun garapen teknika da, deskriptiboa da zorrozki, eta ez dizkigu gizartean dauden kontraesanak ezertarako aipatzen». Nik neuk beste era batera bataiatuko nituzke ikerketa-lanok: Administrazioaren eskutik edo berak zuzenki egindako azterlanen izaera-mota, non ez baita inoiz egitura-kausatasunik hautematen. Itxuraz, duten jatzeta eta datu-bilketa «osoari» esker, errealitate soziolinguistikokoaren ispiluitxura hartzen diozu; alabaina, urrats teoriko bat ematea aski duzu zorroztasun horren lilura geruza soziolinguistikokoaren gainazala besterik ez dela erreparatzeko. Bigarren ikuspegiak abiaburuz eta helburuz besterik erakusten du bere iharduera: «kritikoa da, eta askatasunaren zerbitzuan dago, herri mugimendu historikoen esperientzia eta ekintzekin harreman estuak ditu. Hizkuntzen fenomeno aztertu eta bizitzeko modu horrek, azterketa zientifikoa egitea ezezik, ikertutako errealitate hori aldatzea ere helburuen artean dauka».

Hirugarren atalean honako salaketa egoki hau egiten du gure herrien jatorrizko elebitasun izaera dela eta. Ideologia nagusiaren morroiek diotenez, «kataluniarra bezalako komunitateen berezko izaera elebidunaz hitzegitea, erretorika bidez arazoa ilundu nahi izate eta hizkuntza menperatzaileen inposaketa 'beharrezkoa' dela esanez edozein genozidioren justifikazioari atek zabaltzea da». Euskaldunok ere ondo aski dakigu ideologia nagusiaren aldaera euskaldunak nolako eragina izan zuen guk izan dugun hizkuntzalaririk onenarengan. Villasante han zegoen Euskaltzaindiko bileran Mitxelenaren harako hura jasotzeko: «*Erdara ere hemengo da, gero!*» Geroztik, etengabeko leloa da gure jatorriaren elebitasun-izaera, eta izaera horren erabilera estrategiko neoespainolista.

«Hizkuntza gatazkaren» atalean pil-pilean dagoen auzia ukitzen digu Jordik. Dakigunez, hizkuntz gatazkaren inguruko gure ideologok (hemen ere Mitxelenaren leloa errepikatzen digute; batez ere Mari Karmen Garmendiak) zera gororarazten digute: euskara ez dagoela, bere ahuleziaren ondorioz, auzo-hizkuntza boteretsuekin sesioan has-teko. Jakin bezate ordea, hizkuntz gatazka oro ez dela berez eta izatez makurra eta kaltegarria hizkuntza menderatuarentzat. Gatazka kontzeptua bere zentzurik zabalenean harturik, edonor ohar daiteke honako egiaztapenaren zuzentasunaz: hizkuntzen arteko harremanak kontraizanez taxutuak daudenean «*Hizkuntz gatazka behin-betiko desgertzeak, beraz, hizkuntza menperatuaren desagerpena adieraziko du*». Hipotesi hau onartzen bada, «*hizkuntz gatazka 'galerazten' saiatzen den edozein hizkuntz politika defendatzaile, ez da hain zuzen ere, hizkuntz normalkuntzaren norabidean joango. Beste hitz batzutan esanda: arriskua ez da, inolaz ere, hizkuntz gatazka, hartzen duen norabidea baizik*». Hemen ez da ukatzen noski hizkuntza menderatzailearen ahalguztiduntasuna gutxietsiz, zentzugabeko liskarren ondorio gaitza. Zehatz-mehatz esanda, gatazkaren norabidea da auziaren muina, eta ez gatazka bere hartan: «*Hizkuntza minorizatua normalizatu nahi baldin badugu, beharrezkoa da gatazka ekiditzea, baina alderantzizko norabidean*». Hots: katalanaren edo euskararen aldeko strategi indarrak garatzen dituen gatazkek sustatu behar dira, eta besteak saihestu. Izan ere, ondo pentsatzen jarrita, nola eman dakiok amore hizkuntza menderatzailearen strategiari maila ideologikoan planteatzen den borrokan, maila honetan mendeko izanik hizkuntz normalkuntzan sinesten dugun bitartean? Maila ideologikoan dagoen gatazka irabazten ez den heinean, pentsaezina da inolako hizkuntz normalkuntzarik. Inozoa ez denak ederki asko daki normalkuntza instantzia kultural eta ideologikoetan hezurramitzen dela besteak beste; normalkuntza prozesu sozio-kultural-sinbolikoa (ideia-izarian hartuta) dela.

Gure arteko ardura soziolinguistikoen artean pisu handirik ez duen auzia tratatzen du Jordik bederatzigarren atalean: «Estandar linguistikoa». Gure artean diodanean, euskararen normalkuntza sozialean diharduten euskaltzaleak ditut gogoan, eta ez korpusaren sistema osabetetzeko lanetan ari direnak (Euskaltzaindia, Elhuyar, Lur, UZEI...) Hauen artean gai honek sortu baitu hizpiderik; hizpidea ezezik baita liskar-biderik ere, dena esateko. Goazen bada soziolinguistika katalanaren ikuspegia bere laburzurerean islatzea. Lehenik eta behin, normalizatu nahi den hizkuntzaren ereduak malgua izan behar duela jakinarazten digu: «Estandararen eraikuntzan kontuz ibili behar da eredu arauemaile hertsiegia erabiltzearekin eta era pedagogikoan ihardun behar da». Bigarrenik, ez da nahikoa hizkuntz ereduaren auzia hizkuntzalaritzaren ikuspegitik soilik planteatzea: «Hizkuntza aztertzean, bi alderdi bereiztea komeni da: Sistema, alderdi lexiko, sintaktiko, morfologiko, fonologiko eta gramatikalen azterketa gisa ulerturik, eta hizkuntz'erabileraren alderdia eta beronek gizartearekin eta hizkuntz komunitatearekin duen harremana. Idealismo hutsa da hizkuntzei buruz sistemaren ikuspegitik hitz egitea, erabileraren azterketa baztertu eta ondorioz botere politiko eta sozialaren eragina ere albora utziz».

Hizkuntz ereduaren inguruko auzi honetan, batzuk eta bestek, egoera soziolinguistiko anormalaren *biktima* omen dira Katalunian; guk geuk ere antzekorik pentsatu izan dugu euskararen eredu dela bide sortutako sesioetan. Hain zuzen ere, ez direla forma eta muina bereizten hizkuntz estandarizazioaren eta modernizazioaren korapilo honetan, eta azkenean irizpide formalak nagusitzen direla oilar apustu gisan. Alabaina, mendeko auzia da euskararen eredu estandarra formulatzeko ahalegina, Katalunian den bezanbatean: «arazoa ez da eredu kontua, baizik eta, estatu, menperakuntza politiko, hizkuntz kontrol eta hizkuntz erabileraz gaindi eredu horrek sortarazten dituen ondorioetan dago gakoa: Katalanaren eredu sintaktikoa, morfologikoa, fonetikoa eta lexikoaren espainolizazioa eta araudi tradizionalaren aldekoen arteko norabiderik eza». Hala ere, hor dabilta gure hizkuntzaren *egokitasun* eta *desegokitasun* kontuak lupaz behatu nahirik, termino hauen izaera erabat erlatiboa denean (Aracil), eta euskararen berezko ahalmen-iturriekin mozkortu beharrean. Euskarak ordea ez du berezko gaitasunei esker inolako kode jasorik behin-betiko eraikiko, gizarte-proiektu baten tarteko hizkuntz garapenik ez badago. Katalunian hori argiro dakusate. «Baina emankortasun hori ez da hizkuntzaren berezko potentzialitatea, hiztun komunitateak egiten duen praktikaren edo erabileraren araberako baliozkotasuna baizik. Katalanaren trebetasuna edo azkartasuna hiztunek daukatenean araberakoa da».

Hizkuntz ordezkapenaren estatu-estrategiak bereak egin dituenean, hizkuntz alienazio-maila erabatekoa izan ohi da. Beraz mendeko hizkuntzaren berreraikuntza burutu nahi bada, ez da nahikoa izango idatzizko araudi estandarra finkatzea. Hizkuntz komunitatearen haustura hainbestekoa izateak kode mintzatuaren batasuna ere langai bilakatzeko du, eta ez da geroko gerotan utz daitekeen huskeria. Euskaltzain bati baino gehiagori entzun diogu antzeko arrazoibiderik, eta ez dirudi arrazoi horrek inolako sustrairik izan dezakeenik: Txillardeggi dugu ahoskera batuaren aldeko euskalari saiatuena, eta ez zaio nonbait arrazoirik falta. Katalunian honelatsu bide dago ahoskera batuaren erronka: *«katalan estandarra idatzizko aldaera soilak izan da duela gutxi arte, baina katalana ikus-entzuteko komunikabideetan (telebistan, zineman, bideoan) sartzen hasteak, mahai gainean jarri du katalan estandara ahoskatzeko era egozia lehenbailehen erabakitzea. Horregatik, ez da nahikoa arau ortografikoe-kin»*.

Hamairugarren atalean «Hizkuntz diskriminazioa» hartu du aztergai-tzat. Biktima borrarero bihurtuz, estatu-ideologia nagusiaren legitimitate hegemonikoaz baliaturik, «*Katalanak gaztelania diskriminatu egin izan duela esaten ausartu dira!*». Solé i Camardons-ek esaten digu hizkuntza ez dela soil-soilik komunikazio-tresnatzat hartu behar, diskriminazio faktore ere bihurtu dela. Eta ez da erraza egia borobilagorik esatea! *«Gaztelaniak erabat eta bortizki diskriminatzen du edozein lan mota edo gizarte egoeratan, ez hertsiki espainiarra den lurraldean bakarrik»*. Katalunian edo Euskal Herrian, espainolari Estatu-hizkuntza nagusia izateak damaion estatusari esker, erdalduna hiztun-estatutu hegemonikoki aitortuaren eskutik mintzo zaigu. Bere menpe dauka aurrean daukan euskal hiztuna; eta menpekotasun hori euskal hiztunak berak ere barneraturik dauka berari falta zaion hiztun-estatutu nahikorik ezagatik. Hiztun-legitimitate hau ez da juridikoa soilik, soziala baizik.

Atal honetan bertan hizkuntz erabilgarritasuna, batetik, eta hizkuntza erabiltzeko kontzeptua, bestetik, zedarriztatu nahi izan ditu. Txit argigarri deritzogu bere hizkuntzari. Ikus dezagun hizkuntzaren erabilgarritasunak (hizkuntza estandar-moderno bat jadanik prestaturik edukitzea, esaterako) berez nola ez dakarren mintzaira hori erabiltzeko premiarik: *«Katalana funtzio batzuetarako erabilgarri egiteak ez du esan nahi beharrezko denik. Horrek esan nahi du, katalana hizkuntza erabilgarri bihurtzea beste helbururik ez duen hizkuntz politika orok, elebitasun edo hizkuntz ofizialtasun bikoitz deituak bezala, ez garamatzala nahitaez hizkuntz normalkuntzara, eta katalana bere baitan uzkuertzeraz eraman dezakeela. Hau da, filme jakin bat ikusteraz joan ahal izango gara, liburu edo egunkari jakin*

batzuk irakurri, irrati emisora jakin batzuk entzun eta administrazioaren inprimakiak elebrietan irakurri ahal izango ditugu. Katalana beharrezko izatea nahi badugu, ofizialtasun eskusiboa izan beharko du, hau da, inprimakiak katalan hutsez izan beharko dute, irratiek Kataluniako hizkuntza emititu beharko dute batez ere, (...). Hizkuntz normalkuntzak estrategi bide bakarra du, eta horretan bat gatoz burutik burura: euskararentzat edo katalanarentzat «nagusitasuna esan nahi du, atzerriko hizkuntzek izan dezaketen erabilgarritasuna zalantzan jarri gabe». Hizkuntz erabilgarritasuna eta erabiltzeko beharra bi gauza arras diferenteak direnez, zer gertatzen zaigu gurean? Har dezagun, Administrazioa «euskalduntzeko» martxan dagoen hizkuntz perfilen politika, bat hartzeko. Ez du adimen berezirik behar euskararen erabilgarritasuna xedetzat duen politika hori alde zurretik jota dagoela oharrezko; jota, eta ondo jota gainera, bere ezintasunaren muga linguistiko hutsaletan.

Amai dezagun «Hizkuntza normalkuntza» saileko zenbait ideia astinduz. Sasi-normalkuntzaren harian arras gogoeta iradorra egiten du Jordik. Esango nuke, oker egoteko arrisku handiegirik gabe, bete betean jo duela gure hizkuntz «normalkuntzaren» bihotza. Bihotza, jakina, gaiso dago, eta sendabide guztiak bata bestearen gainean pilaturik ere, adabaki-kutsu hilgarria darie. Aracilek behinola ederki zioen bezala, hau guztiaren jatorrian zera dago: «*gehienezko jomuga bezala aurkezten dizkigute gutxienezko eskakizunen azpitik dauden gauzak*» eta gu tontoak, azkenerako, sinestu egiten diogu borondate oneko diskurtso sasi-normalizatzaileari (Iñazio Oliveri, Mari Karmen Garmendia...).

Azken batean hizkuntz politikaren oinarri operatiboa den legetasun materiala (ez formala: lege izaerak izari asko ditu) dago: Autonomi Estatutuen bidez erdietsitako lege-markoari «neurri normalizatzaileak» eransten zaizkio. Esate baterako: «*Irakaskuntzan hizkuntzak erregulatze-ko dekretuak, hizkuntzaren erdiobligaziozko erabilera legeok ematen dituen gobernuaren menpeko erakunde publikoetan, hizkuntza minorizatua emateko helduentzako ikastaroak, hizkuntz kontzientzia hartzeko kanpainak herritarrentzat, hizkuntzarekiko beraien jarrerak aldatzearen garrantzia ikusarazi nahiz, jendeak giza harremanetan norberaren hizkuntza ez uztea, dendariak txartelak hizkuntza minorizatuan jartzea, etab*». Orain artekoa eta gure egoeraren ispilua gauza bat bera ez baziren, hona gehiago: «*Inkesta soziolinguistikoak ere egin daitezke hizkuntz modu eraginkorragoan ezagutu ahal izateko*». Azken langintza honetarako, gainera, atzerriko adituen izenak nabarmenduko dira, Txepetx Menorcako kaioen artera bidaltzen den bitartean.

Hizkuntz sasi-normalkuntzaren ezaugarriak behinena bere mikroizae-
ra eta plangintza orokor bateratzailerik eza izan ohi da. Hemen asko
dakigu, alafede, hizkuntz politika ofizialaren izaera mikro horretaz.
Plangintza orokorraz, berriz, hobe izango da isilik egotea. Bukatze al-
dera, bidenabar esateko, gure plangintzagile ofizialek eskuratu ote dute
Kataluniakoa? («Plan General de Normalización Lingüística»). Noizko
gurean?